



INMERSIONES 2015

¡Abajo el trabajo! · Pikutara lana!



AURKEZTEKO EPEA FECHA LÍMITE DE PRESENTACIÓN

2015eko azaroaren 25a arte
25 de noviembre de 2015

ARGIBIDEAK ETA OINARRIAK INFORMACIÓN Y BASES

asociacioninmersiones@gmail.com
www.inmersionesgasteiz.wordpress.com

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Art
tium



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

eremuak

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



INMERSIONES
ASOCIACIÓN CULTURAL · KULTUR ELKARTEA

PRESENTACIÓN

En el actual concepto de trabajo no solo hay separación entre el/la trabajador/a y el producto de su trabajo sino también entre las personas y sus deseos.

En este escenario social en donde el control y la comunicación ocupan el centro del poder, y una vez superada la “sociedad fábrica”, cada instante de nuestra vida se hace productivo. Paradox y empleadxs, ricxs y pobres, todxs producimos en el “espacio-tiempo” del capital porque es la sociedad entera la que produce a través de esta nueva forma de trabajo abstracto (la comunicación, el software, la publicidad, el diseño...). En este nuevo espacio se produce hasta la propia subjetividad de la gente, “se produce sociedad”.

Lxs trabajadorxs inmateriales, aquellxs que trabajan en la publicidad, en la moda, en el marketing, en la informática, (¿en el arte?), satisfacen una demanda de el/la consumidor/a y al mismo tiempo instituyen sus formas de consumo y estilos de vida.

Ante esta situación **INMERSIONES 2015** se pregunta por el lugar de la práctica artística en este nuevo escenario productivo, por el arte en relación al trabajo, se pregunta si el arte puede ser un espacio de resistencia o si colabora en este nuevo paradigma laboral, económico y social. **INMERSIONES 2015** se pregunta por el trabajo de lxs artistas, por sus mecanismos y sus objetivos; se pregunta por sus diferentes formas, aplicaciones, manifestaciones e interacciones. **INMERSIONES 2015 se pregunta: ¿Qué tipo de trabajo es el trabajo del arte?**

Porque, por un lado, existe todavía una visión de las prácticas artísticas y culturales como un campo de la actividad social dotado de un carácter “extraordinario” con respecto al conjunto de los ámbitos del trabajo y de la vida.

Pero, por otro lado, merece la pena abordar las condiciones de precarización del trabajo cultural y artístico como un proceso de explotación económica e institucional. Se trata de pensar cómo la precariedad es, en muchos casos, una condición autoimpuesta, interiorizada, y que puede estar en una (auto) concepción de la práctica artística como excepción.

Nos vemos así ante una paradoja: el desprecio por las actuales condiciones del trabajo artístico frente a la necesidad interior que lo acciona; la depreciación del trabajo artístico (en la educación, en la vida cotidiana) frente a la lucha en que nos vemos envueltxs por mantenerlo con vida aunque sea en condiciones de auténtica precariedad.

INMERSIONES 2015 toma como lema “¡Abajo el trabajo!” como un rechazo al trabajo entendido como arma de control social del post capital y, a la vez, propone el arte como un lugar de resistencia (también) en el ámbito del trabajo.

AURKEZPENA

Egungo lanaren kontzeptuan bi bereizketa gertatzen dira: langilearen eta bere lanaren produktuaren artekoa, eta pertsonen eta beren desioen artekoa.

Gizarte-eszenategi horretan, kontrola eta komunikazioa boterearen erdigunean kokatzen dira eta, “gizarte fabrika” behin gaindituta, gure bizitzaren une bakoitza emankorra bihurtzen da. Langabeek zein enplegatuek, aberatsek zein pobreek, denok ekoizten dugu kapitalaren “espazio-denbora”n, gizarte osoak ekoitzi egiten baitu lan mota abstraktu berri honen bidez (komunikazioa, softwarea, publizitatea, diseinua,...). Espazio berri honetan, jendearen subjektibotasuna bera ekoizten da, “gizartea ekoizten da”.

Langile ez-materialek, publizitatean, marketinean, informatikan (eta artean?) lan egiten dutenek, kontsumitzailearen eskaria asetzen dute eta, aldi berean, beraien kontsumo-formak eta bizi-estiloak ezartzen dituzte.

Hori ikusita, **INMERSIONES 2015**ek praktika artistikoak ekoizpenaren eszenategi berri honetan daukan tokiari buruz galdetzen du, baita lanari lotutako arteari buruz, galdetzen du artea erresistentzia-espazio bat izan ote daitekeen edo, aldiz, lan-, ekonomia- eta gizarte-paradigma honen kolaboratzailea ote den. **INMERSIONES 2015**ek artisten lanari buruz galdetzen du, haien mekanismo eta helburuei buruz, galdetzen du artelan horien askotariko forma, aplikazio, adierazpide eta elkarreraginei buruz. **INMERSIONES 2015ek galdetzen du: zer nolako lana da artearen lana?**

Izan ere, alde batetik, bada arte- eta kultura-praktikei buruzko ikuspegi bat praktika horiek gizarte-jardueraren arlotzat hartzen dituen, lanaren eta bizitzaren arloen multzoan “aparte”kotzat dituen.

Aldiz, beste alde batetik, merezi du kultura- eta arte-lanaren prekarizazio-baldintzak esplotazio ekonomiko eta instituzionaleko prozesu batean aztertzea. Pentsatu behar da prekaritatea, sarritan, nork bere buruari ezarritako baldintza dela, barneratua, eta artearen praktika salbuespentzat jotzearen (nork bere buruari emandako) ideian koka daitekeela.

Beraz, paradoxa baten aurrean gaude: egungo lan-baldintza artistikoei buruzko mespretxua eta, aurrez aurre, badugu lan hori eragiten duen barneko premia; lan artistikoaren gutxiespena (hezkuntzan, eguneroko bizitzan) eta, aurrez aurre, badugu bizirik mantentzeko daukagun borroka, benetako prekaritatean izanik ere.

INMERSIONES 2015ek “Pikutara lana!” hartu du goiburutzat, muzin egiten baitio lanari, hauxe post kapitalaren gizarte-kontrolaren arma den aldetik; aldi berean, proposatzen du artea lan-arloan erresistentziarako tokia (ere) izatea.

CONVOCATORIA

Inmersiones 2015 está dirigido a agentes culturales, sociales y artísticos (creadorxs, investigadorxs, mediadorxs y activistas) que vivan, estudien o trabajen en el País Vasco y Navarra. Todos los participantes tienen que aportar una copia del documento que certifique esta vinculación (DNI, certificado de empadronamiento o carné de estudiante).

Cada participante deberá adjuntar debidamente cumplimentada la ficha de inscripción anexa.

Hacemos un llamamiento a participar en Inmersiones (y con Inmersiones) para compartir experiencias, procesos y aprendizajes relativos al trabajo; al trabajo del arte; al trabajo en el arte. Queremos saber qué se entiende por trabajo desde el mundo del arte y cuáles son las relaciones del arte con el nuevo panorama del trabajo.

Puedes participar en Inmersiones como ponente en el congreso, realizando una acción y/o asistiendo al Taller de artista de Isidoro Valcárcel Medina.

A) CONGRESO DE AGENTES: ARTISTAS, COLECTIVOS, CREADORXS, INVESTIGADORXS Y MEDIADORXS.

El grupo motor de Inmersiones seleccionará hasta un máximo de 8 agentes cuya propuesta guarde relación con la temática de “Inmersiones 2015”. El grupo motor se reserva el derecho de invitar al menos a dos agentes al congreso. Los agentes seleccionados por convocatoria se comprometen a realizar una presentación pública de sus procesos y proyectos el día **12 de Diciembre en Vitoria-Gasteiz**.

Artes visuales en cualquier formato, performances, acciones, aportaciones teóricas etc. con un tiempo máximo de presentación de 15 minutos (sin sobrepasar este tiempo bajo ningún concepto). Además cada ponente participará en una mesa redonda posterior y deberá formar parte del grupo de discusión durante toda la jornada de debate.

Cada agente seleccionado recibirá **250 €** como compensación económica por su presentación.

B) ACCIONES: HOSPITALARIOS EN ACCIÓN.

Consiste en una propuesta de acción relativa al tema de Inmersiones 2015. Entendemos “acción artística” como una actividad en la que el espacio y el tiempo son las coordenadas principales para la propia definición del término. La propuesta

DEIALDIA

Inmersiones 2015 Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroan bizi diren kultura-, gizarte- eta arte-arloko eragileei zuzenduta dago (sortzaileei, ikertzaileei, bitartekariei eta ekintzaileei). Parte-hartzaile guztiek lotura hori adierazten duen dokumentuaren kopia bat eman behar dute (NAN, erroldatze-zurtagiria edo ikasle-karneta).

Parte-hartzaile guztiek hemen erantsitako izena emateko fitxa behar bezala bete eta eman behar dute.

Inmersionesen (eta Inmersionesekin) parte hartzeko deia egin nahi dugu, lanari buruzko esperientziak, prozesuak eta ikasketak partekatzeko, arte-lanari, artearen barneko arteari buruzkoak. Jakin nahi dugu zer den gure ustez lana artearen mundutik ikusita eta, lan-panorama berria ikusita, harekin arteak nolako harremanak dauzkan.

Inmersionesen, kongresuko hizlari-lanetan parte har dezakezu, edo ekintza bat eginez, edota Isidoro Valcárcel Medinaren tailerrera bertaratzuz.

A) ERAGILEEN BILTZARRA: ARTISTAK, TALDEAK, SORTZAILEAK, IKERTZAILEAK ETA BITARTEKARI AK.

Inmersionesen talde eragileak 8 eragile aukeratuko ditu gehienez, eta haien proposamenak erlazioa izan behar du “Inmersiones 2015”en gaiarekin. Talde eragileak eskubidea izango du biltzarrerara gutxienez bi eragile gonbidatzeko. Deialdiaren bidez aukeratutako eragileek konpromisoa hartzen dute Vitoria-Gasteizen beren prozesu eta proiektuen aurkezpen publiko bat egiteko, abenduaren 12an.

Ikusizko arteak edozein formatutan, performanceak, ekintzak, ekarpen teorikoak, etab. 15 minutu izango dute horretarako, gehienez (inondik ere ezin da denbora hori gainditu). Gainera, hizlari bakoitzak mahai-inguru batean parte hartuko du gero, eta eztabaida-taldean parte hartu behar du eztabaidajardunaldi osoan.

Aukeratutako eragile bakoitzak **250 €** jasoko ditu bere aurkezpenaren ordainsaritzat.

B) EKINTZAK: “HOSPITALARIOS EN ACCIÓN”.

Inmersiones 2015en gaiari buruzko ekintza egiteko proposamena da. Gure ustez, “ekintza artistikoa” da terminoa definitzeko koordinatu nagusiak

puede plantearse en el local que utiliza Inmersiones, pero también puede plantearse en el espacio público que señale el/la artista, siempre que así se requiera y sea indispensable. Inmersiones intentará satisfacer las necesidades y los permisos necesarios derivados del uso del espacio público. Para ello se precisa una descripción detallada del proyecto, sus necesidades y objetivos.

Las acciones tendrán lugar el viernes 11 y el sábado 12 de diciembre por la tarde (horario por determinar).

El/la artista se compromete a facilitar la información necesaria para la producción del evento y a estar presente durante toda la jornada realizando todos los preparativos necesarios hasta la cita con el público y lxs participantes. El equipo motor seleccionará 4 propuestas.

Cada unx de lxs cuatro seleccionadxs recibirá **400 €** en concepto de honorarios y para cubrir los gastos de producción de la actividad.

C) TALLER DE ARTISTA: ISIDORO VALCÁRCEL MEDINA.

En esta edición tenemos el placer de contar con Isidoro Valcárcel que inaugurará Inmersiones 2015 con una charla. Seguidamente impartirá un taller para artistas. El taller y la charla tendrán lugar el viernes 11 de diciembre en horario de tarde.

espazioa eta denbora dituen jarduera bat. Proposamena egin daiteke Inmersionesek erabiltzen duen lokalerako, baina artistak adierazten duen espazio publikorako ere proposa daiteke, betiere beharrezkotzat eta ezin bestekotzat jotzen denean. Inmersiones, espazio publikoa erabiltzeko dauden beharrianak eta behar baimenak lortzen saiatuko da. Horretarako, proiektuaren, bere beharrianen eta helburuen deskribapen xehea behar dugu.

Ekintzak ostiralean eta larunbatean, abenduak 11 eta 12 egingo dira arratsaldean (ordutegia zehazteke).

Artistak ekitaldirako behar informazioa emateko konpromisoa hartzen du, baita jardunaldi osoan bertan egotekoa ere, eta jendearekin eta parte-hartzaileekin hitzordua heldu arte behar diren prestaketa guztiak egiteko. Talde eragileak 4 proposamen aukeratuko ditu.

Lau aukeratuek **400 €** bana jasoko dute ordainsaritzat eta jarduera ekoizteko gastuei aurre egiteko.

C) ISIDORO VALCÁRCEL MEDINAK EMANGO DUEN ARTISTA TAILERRA.

Edizio honetan, atsegin handiz, Isidoro Valcárcel Medina gure artean izango dugu eta hitzaldi batekin irekiko du Inmersiones 2015. Jarraian, artistentzako tailerra emango du. Tailerra eta hitzaldia abenduaren 11n, ostiralean, izango dira, arratsaldeko ordutegian.

PLAZOS Y DOCUMENTACIÓN

A) Congreso de agentes: Si quieres participar en Inmersiones 2015, Congreso de Agentes, envíanos antes del 25 de Noviembre:

1. Currículo (máximo 3.000 caracteres incluyendo espacios. Formato de texto editable: odt, rtf, txt o doc).
2. Un texto explicando tu motivación y la relación de tu proyecto o trabajo artístico con el tema propuesto (3.000 caracteres. Formato de texto editable: odt, rtf, txt o doc).
3. Un resumen de la ponencia que vas a presentar (3.000 caracteres incluyendo espacios. Formato de texto editable: odt, rtf, txt o doc).
4. Cinco imágenes de tu trabajo (JPG, RGB, 72 ppp.) al correo electrónico **asociacioninmersiones@gmail.com**. Indícanos también el equipamiento que necesitas para realizar la presentación de tu ponencia (por cuenta de la organización).

B) Acciones: Si quieres participar en “Acciones (Hospitalarios en acción)” envíanos antes del 25 de Noviembre:

1. Currículo (3.000 caracteres incluyendo espacios. Formato de texto editable: odt, rtf, txt o doc).
2. Un texto explicando tu motivación y la relación de tu propuesta artística con el tema propuesto, necesidades y explicación detallada de la acción (3.000 caracteres. Formato de texto editable: odt, rtf, txt o doc).
3. Cinco imágenes de tu trabajo (JPG, RGB, 72 ppp) al correo electrónico **asociacioninmersiones@gmail.com**.

C) Taller de artista: Para participar en el taller de Isidoro Valcárcel envíanos la siguiente información al correo electrónico **asociacioninmersiones@gmail.com** (fecha tope 25 de Noviembre):

1. Un breve currículo (1.000 caracteres incluyendo espacios. Formato de texto editable: odt, rtf, txt o doc).
2. Un texto explicando tu motivación para participar en el taller (1.000 caracteres. Formato de texto editable: odt, rtf, txt o doc).

EPEAK ETA DOKUMENTAZIOA

A) Eragileen biltzarra: Inmersiones 2015 Eragileen Biltzarrean parte hartu nahi baduzu, bidal egiguzu azaroaren 25a baino lehen:

1. Zure curriculum (gehienez 3.000 karaktere, espazioak ere tartean. Testu formato editagarrian: odt, rtf, txt edota doc).
2. Testu bat, zure motibazioa eta proposatutako gaiarekin zure proiektuak edo lan artistikoak daukan erlazioa azaltzen duena (3.000 karaktere. Testu formato editagarrian: odt, rtf, txt edota doc).
3. Aurkeztuko duzun ponentziaren laburpena (3.000 karaktere, espazioak ere tartean. Testu formato editagarrian: odt, rtf, txt edota doc).
4. Zure lanaren bost irudi (JPG, RGB, 72 ppp.) Helbide elektronikoa honetara: **asociacioninmersiones@gmail.com**. Adieraz egiguzu ere ponentzia aurkezteko ze ekipamendu behar duzun (antolakuntzaren kontura).

B) Ekintzak: Acciones (Hospitalarios en acción)en parte hartu nahi baduzu, bidal egiguzu azaroaren 25a baino lehen:

1. Zure curriculum (3.000 karaktere, espazioak ere tartean. Testu formato editagarrian: odt, rtf, txt edota doc).
2. Testu bat, zure motibazioa eta proposatutako gaiarekin zure proposamen artistikoak edo lan artistikoak daukan erlazioa, beharizanak eta ekintzaren azalpen xehea azaltzen duena (3.000 karaktere. Testu formato editagarrian: odt, rtf, txt edota doc).
3. Zure lanaren bost irudi (JPG, RGB, 72 ppp.) ondorengo helbide elektronikora: **asociacioninmersiones@gmail.com**.

C) Artista-tailerra: Tailerrean parte hartzeko, bidal egiguzu ondorengo informazioa **asociacioninmersiones@gmail.com** helbide elektronikora (azaroaren 25an, azken eguna):

1. Curriculum laburra (1.000 karaktere, espazioak ere tartean. Testu formato editagarrian: odt, rtf, txt edota doc).
2. Tailerrean parte hartzeko zure motibazioa (1.000 karaktere. Testu formato editagarrian: odt, rtf, txt edota doc).



INMERSIONES VIII

¡Abajo el trabajo! · Pikutara lana!

2015eko abenduak 11 eta 12a **Vitoria-Gasteiz** 11 y 12 de diciembre de 2015